

URAREN EUSKAL AGENTZIAN (URA) LAN-BAIMENEN ARDURADUNAREN LANPOSTUA BETETZEKO PROBA

A. Uraren Euskal Agentzian bost (5) eskabide jaso dira jabari publiko hidraulikoan edo bere polizia-eremuan jarduteko. Eskabide horietako bakoitzerako, adierazi eta justifikatu, labur-labur, egin beharreko izapidetze teknikoa eta administratiboa, eta adierazi kasu bakoitzean ezarri beharreko baldintza nagusiak: (% 40)

- 1. Familia bakarreko etxebizitza eraikitzeke hiri-lurzoru finkatu gisa sailkatutako lurzoruan, polizia-eremuan eta 100 urteko errepikatze denborako uholde-arriskuko eremuan, erkidego barneko esparruan. (20 %)**
- 2. Familia bakarreko etxebizitza eraikitzeke hiri-lurzoru finkatu gabe gisa sailkatutako lurzoruan, 500 urteko errepikatze denborako uholde-arriskuko eremuan, Mediterraneoko arroko Ebro ibaiaren ibaiadarraren polizia-eremuan. (20 %)**
- 3. Metro bateko altuera duen presa txiki bat eraikitzeke jabari publiko hidraulikoan, eta hornidurarako lehen mailako 500 metroko sarea instalatzeko erkidego barneko ibaiadarra den erreka baten polizia-eremuan, KBE eremuan, ur-hartze horren hiri-aprobetxamendurako ur-hornidura izateko. (20 %)**
- 4. Linea elektrikoen azpiko zuhaitzak eta landaredia garbitzeko jabari publiko hidraulikoan eta polizia-eremuan, Mediterraneoko arroko zenbait errekastotan, ingurumenaren aldetik babestuta ez dagoen eremu batean. (20 %)**
- 5. Linea elektrikoa ezartzeko jabari publiko hidraulikoaren gainean eta zenbait errekastoren polizia-eremuan, Kantauri Mendebaldeko Demarkazioaren esparruan. (20 %)**

B. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuan jarduteko. Adierazi eta justifikatu, labur-labur, egin beharreko izapidetze teknikoa eta administratiboa, eta adierazi kasu bakoitzean ezarri beharreko baldintza nagusiak: (% 20)

- 1. Urumeako estuarioaren ondoan eta lehentasunezko fluxu-eremuan dagoen etxebizitza bati erreteila eta fatxada eta kanpoko arotzeriaren mantentze-lanak egiteko. (50 %)**
- 2. Ermitaren ingurua urbanizatzeko, 500 urteko errepikatze denborako uholde-arriskuko eremuan, Busturian. (50 %)**

C. Ariketa praktikoa. (% 40)

Uraren Euskal Agentzian plangintza xehatuari buruzko nahitaezko txostena egiteko eskabidea aurkeztu du EAEko udal batek, zuk aukeratutako demarkazio hidrografiko baten erkidego arteko eremuan kokatutako udal batean, hain zuzen (erantzunean adierazi egin behar duzu zein aukeratu duzun). Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, labor-labor esanda, honako hauek dira esparruaren ezaugarriak:

- Lurzoru gehiena aurreko mendeko 70eko hamarkadan eraikitako eraikinez dago okupatuta dago, eta bizitegi-erabilerako hiri-lurzoru finkatu gisa dago sailkatuta.
- Ezaugarri horiekin, ibilgutik neurtuta, 120 metrora arteko zabalerako zerrenda bat okupatzen du.
- Gaur egungo eraikin batzuk zortasun-eremua okupatzen dute eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde arriskuko eremuaren eraginpean daude.
- Lehentasunezko fluxu-eremuak (LFE aurrerantzean) gaur egungo eraikinen zati handi bat okupatzen du eta esparru guztia dago uholde-arriskupean.
- Lurzoru urbanizagarriaren zati bat 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuaren eraginpean dago eta LFEtik kanpo.
- Urbanizaezina den lurzoru zati bat dago 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuaren eraginpean.

Hona hemen aldaketa puntualek proposatutakoa:

- a) Eremu bat, non polizia-eremutik kanpo dauden eraikinak birgaituko diren bolumena eta azalera aldatu gabe.
- b) LFE eremuan eta eremutik kanpo dauden zenbait eraikin eraitsi, eta berriak eraiki, sestra gainean bi solairu dituztenak eta garajeetarako solairu bat lurpean.
- c) Zortasun-eremuko eraikinak eraitsi eta berreraiki, egungo lerrokadura berarekin.
- d) Zaharren egoitza bat eraiki Q500 urteko uholde-arriskuko eremuan.
- e) Hiri-parke bat eraiki lurzoru urbanizagarrian.
- f) Ortu ekologikoak antolatu, nekazaritza-tresnak gordetzeko eraikin eta guzti, urbanizaezina den lurzoruan.

Ertz bietarako proposatutako garapen bakoitzari dagokionez, aztertu eta adierazi egingo dira honako hauek:

1. Uraren arloko araudia betetzen dela bermatzeko proposamenek kontuan hartu beharko lituzketen baldintzatzaileak. (40 %)

2. Araudi horretan xedatutakoarekin bateraezinak diren jarduketarik badago, identifikatu jarduketa horiek, eta azaldu zergatik ez diren bateragarriak. (30 %)
3. Azkenik, interesdunarekin biltzea balitz, aztertu zer antolamendu-aukera planteatu litezkeen aurreikusitako garapenak eta uren arloko araudia betetzea bateragarri egiteko. (30 %)

INFORMAZIO GEHIGARRIA

Aurreko atal bakoitza baloratzeko ponderazioa galdera bakoitzean dago adierazita.

2 ordu eta 30 minutu izango dituzu proba egiteko.